

Itziar Aduriz

Bartzelonako Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Saileko irakaslea

1 . Kultura eta hizkuntzaren defentsan oinarritutako katalanismo kulturalak XIX. mendetik hona, eta katalanismo politikoak azken hamarkadetan indar handia izan dute. Baina independentziaren aldeko aldarriak azken lau urteotan baino ez du lortu hegemonikoa izatea. Nola osatu da diskurtso subiranista hori, eta nola iritsi da hegemoniko izatera?

Gizarte katalanean modu hegemonikoan osatu den diskurtso subiranista hori ulertu ahal izateko, normala den bezala, hainbat eta hainbat faktoreri erreparatu behar zaie, eta seguru asko, bata besteak gabe ala elkarreragin hori gabe, ez zen lortuko orain dela lauzpabost urte gertatu den subiranismoranzko joera hori.

Horrela, faktore historiko, kultural eta linguistikoek berebiziko garrantzia dute, oinarrien ikuspuntutik. Ereitean lurra emankorra izatea garrantzizkoa den bezala. Izan ere, eta erreferentzia hurbilenak gogora ekarriz, XIX. mendean zehar eta XX. mendearen hasieran lan handia egin zen zentzu horretan. Mankomunitatearen lana gogoratu besterik ez dago, mendeurrena betetzen duen honetan (<http://mancomunitatdecatalunya.cat/inici>). Alegia, herri kontzientzia sortuz eta,

pixkanaka, mendeetan zehar osatuz doan kontua da, lur emankorra prestatuz doan bezala, goiko metafora berrartuz.

Oinarri horren gainean azken urteotan gertatuak ez dira bigarren mailakoak, eta zentzu berean bultzaka etorri dira.

Bat nator esaten dutenekin Kataluniaren arazoaren artean, giltzarrienetakoa, ekonomikoa dela. Egunero sumatzen eta ikusten da kalean. Bizitzen ari garen krisiaren aurretik ere

Bat nator esaten
dutenekin Kataluniaren
arazoaren artean,
giltzarrienetakoa,
ekonomikoa dela.
Egunero sumatzen eta
ikusten da kalean

ikusi eta sumatzen zen, baina krisiak egin duena, nire ustez, injustiziaren diskurtsoa areagotzea izan da. Estatuarekiko erlazioan punturik injustuentzat jotzen dutela esango nuke. Alegia, kontuak egiten hasi eta ikusten dute jasotzen dutena baino gehiago aporteratzen diotela Estatuako kutxari eta, beraz, kontuak ez zaizkiela ateratzen ongi.

Deformazio profesionalak kontu honi buruz hitz egite-rakoan erabiltzen den hitz bati erreparatzera eraman nau. Alegia, 'espoli fiscal' etengabe entzuten eta irakurtzen da komunikabideetan (gainera, Katalunian ekonomisten tradizio handia dago –Bartzelonan 1958an sortutako Cercle d'Economia, ekonomialari-eskola ospetsua eta nazioartean aintzatetsia–, eta hortik ateratako kide batzuk oso aktiboak dira beren iritzi subiranistak azaltzen; kontuan hartu, adibidez, horietako batzuek *Collectiu Wilson* –www.wilson.cat/es– osatu dutela, prozesuan modu aktiboan parte hartuz). Euskaraz hori nola esan begiratzeko hasi naizenean, Elhuyarren hiztegi elektronikoan haxe topatu dut: 'indarrezko ebaste'. Ezin zehatzagoa. Esango diet nire lagun katalanei. Gustatuko zaie, ziur naiz.

Iritzi hori, gainera, zabaldua baino zabalduago dago katalanen artean. Nik sumatu dudanarengatik, gehien konpartitzen den iritzia dela esango nuke. Alegia, independentismoaren aurrean kontrako iritzia dutenek ere konpartitzen dutena.

Eta, azkenik, Espainiako Estatuaren «laguntza» ezin aipatu gabe utzi. Beren jarrera zurrun eta gogorrarekin eta azken aldian onartzen ari diren legeekin (Wert legea, besteren artean eskoletako hizkuntz murgilketaren kontrakoa, adibidez) eta ematen ari diren sententziekin (Auzitegi Konstituzionalak Estatut-aren kontra eman zuena, adibidez), subiranisten zerrenda puztu besterik ez dira egiten ari. Gaur goizean entzundako datu esanguratsua ekarriko dizuet: Asmblea Nacional Catalana erakundeak orain dela urtebete 12.000 bazkide zituen; gaur egunean 34.000 dituzte eta kolaboratzaile eta jarraitzaileekin batera ia 50.000ra iritsi dira.

Datu horrekin dena esanda dago.

2. 2010etik hona, hainbat plataforma eta elkartetan antolatutako gizarte zibilak hartu du prozesu subiranistaren gidaritzan, alderdi eta erakunde politikoak bide horretara ekartzea lortuz. Zergatik eta nola iritsi da gizarte zibila antolaketa-maila eta erakarpen-indar hori izatera?

Hiru puntu dira galdera horren inguruan kontuan hartu beharrekoak:

- 2010ean Auzitegi Konstituzionalak Estatut-aren kontra ebatzi zuen.
- 2010ean Artur Masek hauteskundeak irabazi zituen.
- Subiranismoaren ikurra gehien defendatzen zuen Esquerra Republicana taldeak aurreko legegaldian gobernuan izandako gestioarengatik «zigorra» jaso eta hauteskundeak «galdu» zituen.

Estatutuaren kontrako ebazpenak gauza asko mugiarazi zituela iruditzen zait, ebazpen horrek Estatuaren aurpegirik zurrunena azalarazi zuelako berriro ere, sektore subiranisten haserrea eraginez.

Horrekin batera, zalantza eta erreparoz beteriko Convergència hauteskundeak irabazi zituen. Esquerra Republicana, berriz, berrantolatze-prozesuan.

Garbi dago eragiketaren ebazpena: gizarte zibilak hartu behar zuen prozesuaren ekimena.

Ordutik aurrera, zalantzarik beteriko Convergènciaiaren bi-deak erabakitzeke eskubidearen alde egin du gero eta nabarmenago, alde batetik; eta, bestetik, sozialisten aldetik ere indar handia zuen korrante katalanistak gero eta gehiago egin du prozesuaren alde.

3. Nolakoa jarrera hartu dute gizarte katalaneko sektore ezberdinek prozesu subiranistaren aurrean? Zehazkiago, nola erantzun dute hezkuntzaren eta unibertsitatearen esparruak?

Instituzionalki ez da egon, nik dakidala, inongo adierazpenik prozesu subiranistaren aurrean.

Azken lauzpabost urte hauetan mugimendu handia egon da unibertsitatearen inguruan, batez ere ikasleen aldetik, baina ez dute izan zuzenean prozesu subiranista ardatz zuzena. Zeharka beharbada, baina zuzenik ez.

Urte hauetan Estatuko unibertsitateek barne aldaketa prozesu bizia izan dute, Boloniako prozesua dela-eta, eragin praktikoa nabarmena izan duena alderdi ekonomikoan, eta noski, akademikoan ere bai. Prozesuaren azken helburua Europarekin bateratzea izan da, kreditu sisteman eta titulazioetan.

Krisi ekonomikoaren garai betearekin etorri da bat aldaketa hori, eta unibertsitateko ikasleen protestak gai horietatik bideratu dira gehienbat.

Protesta horiek ikuspuntu sozialagoa izan dute politikoa baino.

Unibertsitatearen barneko eguneroko biziari dagokionean, kanpoan bezala, prozesu subiranistaren aldeko joera nabarmena ikusten da ikasle nahiz irakasleen aldetik. Nire inguruan behintzat.

Ni Bartzelonako Unibertsitatean nagoen azken hamabost urte hauetan, zenbait irakasleren bilakaera interesgarriak bizi izan ditut. Horietako asko alderdi sozialistatik eta beste asko Iniciativa per Catalunya Verds-etik joera subiranista-goetara, eta kasu bat baino gehiagotan, independentismoaren

muturrean dagoen CUPera (Candidatura d'Unitat Popular), adibidez (ez dut aukera hau galdu nahi esateko CUP alderdiko David Fernàndez euskaltzale amorratua dela, eta garai batean Bartzelonako Euskal Etxearekin batera lan asko egin zuela Euskal Herrian bizi izan dugun egoera bidegabe baten baino gehiagoren aurrean; bereziki, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenekoan), ala Procés Constituent delakora, Teresa Forcades mojak eta Arcadi Oliveres ekonomialariak aurrera eraman duten ekimenera (47.254 kide ditu: www.procesconstituent.cat/ca).

Hezkuntzan, begi bistakoa-goa da hezkuntza komunitatearen jarrera, erabat aldekoa gobernuan dauden hezkuntzako buruzagietatik hasita, herri eta auzoetan dauden eskoletaraino. Azken horietan, beti bezala, herrialdearen arabera, baina esango nuke

gehienbat aldeko jarrera ikusten dela eskola munduan. Izan ere, hezkuntzan eraso zuzena izan dute Wert legea dela-eta, hizkuntz murgilketa arriskuan jarri baita, eta horren aurrean jarrera aktiboagoa hartu dute. Ia eskola gehienetan senyera (bandera katalana) ikusten ahal da atean jarrita, ala patioan. Banderaren ondoan, 'Som escola. Escola en català' dioen kartela ere egoten da. Erasoaren aurrean sortutako ekimenaren leloa da. Ekimena Òmnium Culturalen barruan kokatzen da, prozesuaren alde oso modu aktiboan agertu den beste herri mugimendua izaki (www.omnium.cat/somescola-cat).

Begi bistakoa da hezkuntza komunitatearen jarrera, erabat aldekoa gobernuko buruzagietatik hasita, herri eta auzoetan dauden eskoletaraino

4. 2014ko agertoki politikoa definituta dagoen bezala, Kataluniaren eta Espainiako Estatuaren arteko talkak saihestezina dirudi. Epe laburrera begira, zein erreakzio izango dute Kataluniako alderdi eta erakunde politikoek zein gizarte zibilak?

Hori da GALDERA, letra larriz idatzita. Ez dakit prozesuaren alde dauden alderdi politikoek ere ba ote dakiten. Nik uste dut ezetz. Baina kalean eta lagunartean gai honi buruz hitz egiten denean, maiz ateratzen den kontua eta galdera da. Zenbateraino eutsiko ote dioten. Hemendik ikusita benetan gogorra gertatzen ari da Espainiako Estatuaren eraso. Gogorra eta etengabea, mehatxuz betea eta ahal dela beldurra zabaltzeko helburuarekin. Subiranotasunaren aldeko erakundeetako buruzagiek diote bazekitela hori dena gertatuko zela, eusteko prest daudela; eta konbentziturata daude botoa ematea izango dutela, nola edo hala. Gizartean, ordea, zalan-tza gehiago dago eta zenbait sektoretan Espainiako Estatu-a zabaltzen ari den beldurra sumatzen hasia da.

5. Kataluniako prozesu subiranistaren azken fase edo geltokia estatu independentea da. Azken helburua argi egonagatik, zer proposamen daude estatu horren diseinuaren definizioari begira?

Consell Assesor per a la Transició Nacional (www14.gencat.cat/sacgencat/AppJava/organisme_fitxa.jsp?codi=19037) zeregín horrekin sortu zen, besteren artean, baina nire irudipe-na da puntu zehatz horietan baino beste aurreragoko kontue-tan daudela, hala nola, galdeketari berari buruz, egingo ote den ala ez, Espainiako Estatuaren legalitatea errespetatuko den ala ez, egiten bada nola eta egiten ez bada zer, etab. Orain arte sei txosten egin dituzte publiko.

Horrezaz gain, Teresa Forcadese eta Arcadi Oliveresek aurrera daramaten Procés Constituent ekimenaren inguru-an, etengabe dabil-tza eztabaida-prozesua sustatzen lu-rralde guztitik barrena, herriz herri ia, eta gai ekonomiko eta sozialen inguruan herriko jendearekin eztabaidatzen eta ondorioak ateratzen balizko egitura sozio-politikoa diseina-tzen laguntzeko.

6. Zer irakaspen izan ditzake Euskal Herriarentzat Kataluniaren prozesu subiranistak? Eta zer ekarpen egin diezaioke Euskal Herriak prozesu horri?

Espainiako Estatuan prozesu aitzindaria da, baina oraindik martxan dagoena, zer bilakaera izango duen epe motzean eta nola bukatuko den ez dakiguna. Bitartean, egoera bertsuan dauden herriek oso adi begiratu behar dute kasu hori aurrerantzean zer eta nola egin erabakitzeko.

Euskal Herria, bere aldetik, herri-ekimenekin ongi trebatua da aspaldi-aspalditik. Zentzu honetan, eta ikusita prozesu honetan herri-ekimenak duen garrantzia, bi herrien arteko elkarlana bultza zitekeen eta esperientziak konpartitu ahal den etekinik handiena ateratzeko. 🤝